



AGINDUA, INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNEN SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ ERABAKITZEN BAITA AURRETIAZ ONARTZEA EUSKADIKO TRANTSIZIO ENERGETIKOAREN ETA KLIMA-ALDAKETAREN HERRITARREN BATZARRA ARAUTZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUA.

ORDEN DEL CONSEJERO DE INDUSTRIA, TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y SOSTENIBILIDAD, POR LA QUE SE ACUERDA LA APROBACIÓN PREVIA DEL PROYECTO DE DECRETO POR EL QUE SE REGULA LA ASAMBLEA CIUDADANA DE TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y CAMBIO CLIMÁTICO DE EUSKADI.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuaren 2025eko ekainaren 26ko aginduaren bidez, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Euskadiko Herritarren Batzarraren osaera, antolaketa eta funtzionamendua arautzeko dekretu bat egiteko prozedura hasia erabaki zen.

Mediante Orden de 26 de junio de 2025, del consejero de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad se acordó el inicio del procedimiento de elaboración de un decreto por el que se regule la composición, organización y funcionamiento de la Asamblea Ciudadana de Transición Energética y Cambio Climático de Euskadi.

Prozedura hasi ondoren, dekretu-proiektua egin da, eta hori aldez aurretik onartzea da agindu honen xedea.

Tras el inicio del procedimiento se ha procedido a la elaboración del Proyecto de Decreto cuya aprobación previa constituye el objeto de la presente Orden.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean ezarritakoa betez, eta dekretu-proiektua 2025eko ekainaren 26ko Aginduan ezarritako planteamenduen arabera egin denez, bidezkoa da hura onartzeko izapide egokiek jarraitzea.

En cumplimiento de lo establecido en la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, y habiéndose elaborado ya el proyecto de Decreto conforme a los planteamientos establecidos en la Orden de 26 de junio de 2025, procede continuar con los trámites oportunos para aprobar el mismo.

Aipatutako 6/2022 Legearen 15. artikuluan ezarritakoaren arabera, aipatutako lege-manuak eta izaera orokorreko eta harekin bat datozen beste xedapen batzuk ikusita,

En virtud de lo establecido en el artículo 15 de la citada Ley 6/2022, vistos los preceptos legales citados y otras disposiciones de carácter general y concordante aplicación,

#### EBAZTEN DUT:

#### RESUELVO:

LEHENENGOA: Aldez aurretik onartzea Euskadiko Trantsizio Energetiko eta Klima Aldaketari buruzko Herritarren Batzarraren osaera, antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen dekretu-proiektua.

PRIMERO: Aprobar previamente el proyecto de Decreto por el que se regula la composición, organización y funcionamiento de la Asamblea Ciudadana de Transición Energética y Cambio Climático de Euskadi.



BIGARRENA: Ezarritako prozedurarekin jarraitzea, aurreikusitako izapideak eginez eta nahitaezko txostenak bilduz.

SEGUNDO: Continuar con el procedimiento establecido, realizando los trámites previstos y recabando los informes preceptivos.

HIRUGARRENA: Aldez aurretik onartutako dekretu-proiektuaren testua EAEko Legebiltzarrera bidaltzea, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea aldatzen duen ekainaren 2ko 8/2016 Legea betetzeko.

TERCERO: Remitir al Parlamento Vasco el texto del proyecto de Decreto aprobado de forma previa, en cumplimiento de la Ley 8/2016, de 2 de junio, de modificación de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno.

Vitoria-Gasteizen, sinaduraren datan

En Vitoria.Gasteiz, a la fecha de su firma

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburua  
El consejero de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad  
MIKEL JAUREGI LETEMENDIA

**DECRETO /2026, de de , por el que se regula la composición, organización y funcionamiento de la Asamblea Ciudadana de Transición Energética y Cambio Climático de Euskadi.**

La Ley 1/2024, de 8 de febrero, de Transición Energética y Cambio Climático del País Vasco, contempla en su artículo 12 la creación de una Asamblea Ciudadana como instrumento de participación pública en la definición de políticas energéticas y climáticas.

El artículo 12.3 de la Ley 1/2024, destaca que la composición, organización y funcionamiento de la Asamblea Ciudadana de Transición Energética y Cambio Climático de Euskadi serán reguladas mediante decreto en el marco de lo que establece el artículo 19 de la Ley 3/2022, de 12 de mayo, del Sector Público Vasco, o norma que la sustituya, en lo que se refiere a los espacios estables de participación ciudadana y asociativa.

El fortalecimiento democrático y comunitario es un objetivo prioritario para el Gobierno Vasco. Siguiendo la base del Programa de Gobierno 2024-2028, se ha establecido una estrategia que pretende ser transformadora. Uno de los pilares fundamentales de ese camino se centra en la relación entre las instituciones públicas y la sociedad: entre otras cuestiones, busca promover, profundizar y mejorar la relación entre la ciudadanía, la administración pública y los responsables políticos, poniendo en marcha para ello diferentes procesos y herramientas de colaboración, deliberación y participación.

En el marco de esa estrategia, la Gobernanza Colaborativa es un paradigma de trabajo que busca incorporar a la definición, desarrollo e implementación de las políticas públicas a la ciudadanía, sociedad civil organizada y la comunidad, promoviendo la colaboración entre todos los actores implicados. Esta forma de abordar las políticas públicas es especialmente eficaz y propicio para dar respuesta a retos y realidades complejos e interconectados, donde intervienen infinidad de factores. Asimismo, favorece la innovación democrática y fomenta la cultura democrática.

Así, se propone el impulso de procesos de deliberación y participación ciudadana, para implicar a la sociedad en las políticas públicas sobre cuestiones relevantes de la agenda pública, entre las que destaca como primera experiencia de carácter temático, la puesta en marcha de la Asamblea Ciudadana de Transición Energética y Cambio Climático.

Esta Asamblea se configura como un foro deliberativo para generar reflexión y conocimiento colectivo que permite a la ciudadanía informarse, debatir y formular propuestas sobre los retos y soluciones ante la transición energética y el cambio climático, desde una perspectiva de justicia social, equidad y transición justa.

El diseño de la Asamblea Ciudadana de Transición Energética y Cambio Climático de Euskadi que se contempla en esta norma se inspira en las experiencias internacionales más relevantes, así como en otras más cercanas, apostando por un modelo permanente por considerarlo el más adecuado para tratar las cuestiones energético-climáticas.

La Oficina Vasca de Transición Energética y Cambio Climático actuará como órgano de apoyo técnico a la Asamblea Ciudadana de Transición Energética y Cambio Climático de Euskadi, otorgándole así carácter permanente. Será una herramienta de participación ciudadana para llegar a acuerdos consensuados entre la ciudadanía sobre dilemas relacionados con la Transición Energética y el Cambio Climático. La Asamblea generará recomendaciones y se insertará en el sistema institucional vasco, con puentes creados entre su labor y la de las diferentes instituciones existentes.

Euskadi se inscribe así en el movimiento global de activación de Asambleas Ciudadanas creadas para generar reflexión y conocimiento colectivo, permitiendo a la ciudadanía informarse, deliberar y alcanzar consensos sobre cuáles deben ser las soluciones a las grandes transformaciones que es necesario acometer para hacer frente a los retos de la transición energética y de la emergencia climática.

Inspirada en los valores democráticos y en el compromiso con una gobernanza abierta, transparente y cercana, esta regulación busca consolidar la voz de la ciudadanía como elemento esencial para el diseño, evaluación y mejora de las políticas públicas, contribuyendo así al fortalecimiento del tejido social y al desarrollo sostenible de la comunidad.

En su virtud, a propuesta del consejero de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad, de acuerdo con/oída la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día de de 2026.

## **DISPONGO:**

### **CAPITULO I. DISPOSICIONES GENERALES.**

#### **Artículo 1.- Objeto.**

1.- Este Decreto tiene por objeto establecer la composición, organización y funcionamiento de la Asamblea Ciudadana de Transición Energética y Cambio Climático de Euskadi, conforme a lo previsto en el artículo 12 de la Ley 1/2024, de 8 de febrero, de Transición Energética y Cambio Climático.

2.- A tales efectos, la Asamblea Ciudadana de Transición Energética y Cambio Climático de Euskadi (Asamblea Ciudadana de TECC de Euskadi) que se regula en esta norma se configura como un órgano de carácter permanente que contará con el apoyo técnico y administrativo del Gobierno Vasco, a través de la Oficina Vasca de Transición Energética y Cambio Climático (Oficina Vasca de TECC).

3.- La Asamblea Ciudadana de TECC de Euskadi será convocada por el departamento competente en materia de transición energética y cambio climático.

#### **Artículo 2.- Finalidades.**

1.- La Asamblea tiene por objeto promover la intervención directa de la ciudadanía en la formulación, seguimiento y evaluación de políticas públicas, especialmente en el ámbito de la transición energética justa, la sostenibilidad ambiental y la acción climática local.

2.- La Asamblea Ciudadana de TECC de Euskadi se establece como un foro para generar reflexión y conocimiento colectivo, permitiendo a la ciudadanía informarse, deliberar y alcanzar consensos sobre cuáles deben ser las soluciones a las grandes transformaciones que es necesario acometer para alcanzar la neutralidad climática lo antes posible y para hacer a la Comunidad Autónoma del País Vasco más resiliente a los impactos del cambio climático, con una perspectiva justa y solidaria.

3.- Son funciones de la Asamblea Ciudadana de TECC de Euskadi:

- Analizar el tema asignado con apoyo técnico e informativo.
- Deliberar sobre el dilema y la pregunta propuesta.

- Formular propuestas y recomendaciones en materia de transición energética y cambio climático.
- Socializar el proceso una vez presentadas las recomendaciones.

### **Artículo 3.- Principios rectores.**

1.- Su funcionamiento se regirá por los principios de representatividad, imparcialidad, independencia, transparencia y acceso a la información.

2.- La Asamblea Ciudadana de TECC de Euskadi actuará con autonomía funcional, transparencia e independencia respecto de partidos políticos, intereses particulares y órganos administrativos.

## **CAPITULO II. COMPOSICIÓN.**

### **Artículo 4.- Composición.**

1.- La Asamblea Ciudadana de TECC de Euskadi estará compuesta como mínimo por 30 personas que representen la diversidad de la sociedad vasca. Su composición tendrá en cuenta el principio de representación equilibrada entre mujeres y hombres e incluirá la participación de personas jóvenes lo que será garantizado mediante un sorteo cívico estratificado en relación con variables sociodemográficas claves tales como sexo, idioma, renta, cualificación profesional, procedencia geográfica, residencia en área urbana o rural, entre otros.

En cada sorteo, se establecerá una reserva de personas para el caso de que alguna persona de la asamblea renuncie a su participación.

2.- Cada vez que se convoque una Asamblea Ciudadana de TECC se seleccionarán las personas que formarán parte de ella.

3.- La participación de las personas que integran la Asamblea Ciudadana de TECC tendrá carácter voluntario y serán independientes.

4.- Podrán ser seleccionadas todas las personas mayores de 18 años residentes en Euskadi y registradas en el Padrón electoral.

5.- No podrán, en ningún caso, formar parte de la Asamblea Ciudadana de TECC:

- a) Las personas electas que formen parte del Congreso de los Diputados, Senado, Parlamento Europeo o Parlamento del País Vasco y asistentes parlamentarios acreditados /as en el Parlamento del País Vasco.
- b) Los alcaldes, alcaldesas, concejales y presidentes o presidentas de concejos y juntas administrativas u otras entidades locales.
- c) Las personas titulares de la Presidencia, las Vicepresidencias, los miembros de las Juntas de Gobierno y de los Plenos de las Diputaciones Forales, así como los altos cargos de dichas administraciones.
- d) Las personas empleadas de cualquier partido político o de sus fundaciones.
- e) Los miembros y altos cargos del Gobierno Vasco.
- f) Personas que hayan participado en procesos similares en los últimos tres años.

**6.-** Las personas seleccionadas para participar deberán firmar una declaración responsable exponiendo que no incurrir en ninguna de las anteriores causas.

**7.-** Una vez aceptada la participación por las personas que componen la Asamblea Ciudadana de TECC de Euskadi, su renuncia deberá ser motivada.

En caso de renuncia, incapacidad o inasistencia reiterada las vacantes serán cubiertas siguiendo el orden de extracción del sorteo estratificado.

### **CAPÍTULO III. ÓRGANOS DE APOYO Y COLABORACIÓN**

#### **Artículo. 5- Gobernanza.**

**1.-** Durante el funcionamiento de la Asamblea Ciudadana de TECC de Euskadi intervendrán los siguientes órganos, establecidos todos ellos en la Ley 1/2024, de 8 de febrero, de transición energética y cambio climático.

- a) Oficina Vasca para la Transición Energética y Cambio Climático.
- b) Comité Científico de Transición Energética y Cambio Climático.
- c) Comisión Parlamentaria sobre Transición Energética y Cambio Climático.

**2.-** La Oficina Vasca de TECC, es el órgano técnico y administrativo de apoyo a la Asamblea Ciudadana de TECC de Euskadi, que actuará como secretaría técnica y de acompañamiento permanente, proporcionando soporte metodológico, técnico y de gestión.

**3.-Corresponderá a la Oficina Vasca de TECC:**

- a) Ejercer las funciones de secretaría técnica de la Asamblea de TECC de Euskadi, activando y dinamizando la Asamblea.
- b) Tramitar los procedimientos de contratación y provisión de bienes y servicios necesarios conforme a la normativa pública vigente.
- c) Garantizar una adecuada coordinación interdepartamental dentro del Gobierno y de las diferentes instituciones públicas.
- d) Prestar asistencia técnica en materia de transición energética y cambio climático.
- e) Elaborar actas, informes, registros y custodiar la documentación oficial.
- f) Recabar propuestas de dilemas por parte de los grupos de interés y facilitar el proceso de definición del dilema, por un lado, y de la pregunta que se abordará en cada Asamblea Ciudadana de TECC, por otro.
- g) Realizar, si fuera necesario, análisis técnicos, ambientales, económicos y sociales de las propuestas de la Asamblea Ciudadana de TECC de Euskadi.
- h) Apoyar al departamento competente en materia de transición energética y cambio climático en el seguimiento de la implementación de las recomendaciones y su evaluación.

**4.-** El Comité Científico prestará apoyo técnico a la Oficina Vasca de TECC en la implementación de la Asamblea Ciudadana de TECC de Euskadi. Entre otros aspectos, prestará apoyo a la hora de definir el dilema y la pregunta.

**5.-** La Comisión Parlamentaria sobre Transición Energética y Cambio Climático validará, con el mayor consenso político posible, el dilema propuesto por la Oficina Vasca de TECC de Euskadi.

## **CAPÍTULO IV. FUNCIONAMIENTO.**

### **Artículo 6.- Funcionamiento**

**1.-** El método de trabajo, gobernanza y demás cuestiones relativas al funcionamiento de la Asamblea Ciudadana de TECC de Euskadi se definirá por la Oficina Vasca de TECC de Euskadi, con el respeto a las garantías establecidas en la normativa internacional, e inspirada en las directrices de la OCDE, y se plasmarán en un procedimiento interno.

**2.-** Las sesiones de la Asamblea Ciudadana de TECC de Euskadi se estructurarán en tres fases y para su desarrollo se tendrán presentes los principios de buenas prácticas de la OCDE:

- a) Fase de aprendizaje: se proporciona a las personas componentes de la Asamblea información equilibrada, clara y completa en relación con el dilema planteado, de forma que las personas participantes adquieren el conocimiento necesario para llevar a cabo una deliberación informada.
- b) Fase de deliberación: las personas participantes contrastan los contenidos, imaginan posibles escenarios futuros y exploran posibles respuestas para la pregunta planteada, debiendo llegar a consensos.
- c) Fase de elaboración de recomendaciones: se redactan recomendaciones para dar respuesta a la pregunta de partida.

**3.-** Todas las recomendaciones elaboradas por la Asamblea Ciudadana de TECC serán sometidas a votación, incorporándose al informe final las que obtengan el voto favorable de al menos el 80% de las personas presentes que configuren la Asamblea en el momento de la votación.

Las recomendaciones que no alcancen el nivel de apoyo establecido en el párrafo anterior podrán incluirse, con carácter complementario, mediante una breve exposición que describa la recomendación y las razones que justifican su importancia según sus proponentes.

**4.-** Como resultado de dichos debates la Asamblea Ciudadana de TECC elaborará un Informe de Recomendaciones.

**5.-** Dicho informe será público, se remitirá al departamento con competencia en transición energética y cambio climático, a la Comisión de Transición Energética y Cambio Climático de Gobierno Vasco y a la Oficina Vasca de TECC. Asimismo, el departamento lo presentará ante la Comisión competente en materia de transición energética y cambio climático del Parlamento Vasco, todo ello con el fin de facilitar el debate y la toma de decisiones en materia de política de transición energética y cambio climático.

**6.-** El departamento competente en materia de transición energética y cambio climático deberá dar una respuesta pública a las recomendaciones, al menos, en tres ocasiones. La primera en los tres meses siguientes a la recepción de las recomendaciones y otras dos veces más, a los 6 y 18 meses de la primera respuesta, para dar seguimiento a la implementación de las recomendaciones.

**7.-** Cada vez que se convoque una Asamblea Ciudadana de TECC de Euskadi se realizará una evaluación externa del funcionamiento para evaluar el cumplimiento de los principios rectores por una entidad independiente.

**8.-** La administración competente deberá convocar, al menos, una Asamblea Ciudadana de TECC por cada legislatura, siempre que exista algún dilema público que requiera ser abordado mediante deliberación ciudadana.

#### **Artículo.7.- Determinación del dilema y la pregunta.**

**1.-** La Asamblea Ciudadana de TECC de Euskadi abordará y debatirá sobre los retos a que se enfrenta Euskadi ante la transición energética y el cambio climático.

**2.-** La Oficina Vasca de TECC recabará propuestas de dilemas por parte de diferentes grupos de interés.

**3.-** La Oficina Vasca de TECC será la encargada de facilitar el proceso de definición del dilema.

**4.-** El dilema de la Asamblea Ciudadana de TECC de Euskadi será validado por la Comisión Parlamentaria de Transición Energética y Cambio Climático con el consenso más amplio posible.

**5.-** La Oficina Vasca de TECC, junto al Comité Científico de TECC, se encargará de definir la pregunta que se abordará en la Asamblea Ciudadana de TECC. La pregunta debe acotarse a un reto concreto, de forma que la Asamblea Ciudadana dé una respuesta en un tiempo acotado, y debe encajar en la agenda política del momento.

#### **Artículo 8.- Compensación por participación.**

**1.-** Las personas que formen parte de la Asamblea Ciudadana de TECC de Euskadi recibirán una compensación económica por su participación efectiva en las sesiones deliberativas.

**2.-** Esta compensación tendrá como finalidad:

- Reconocer el tiempo y esfuerzo dedicados por las personas participantes.
- Facilitar la participación de perfiles que habitualmente enfrentan barreras socioeconómicas o de disponibilidad.
- Promover la diversidad y representatividad en la composición de la Asamblea.

3.- El importe y los conceptos compensables serán determinados en la convocatoria correspondiente, atendiendo a criterios de equidad, proporcionalidad y disponibilidad presupuestaria.

En el caso de personas en situación de dependencia, con responsabilidades de cuidado o con necesidades especiales, se podrán prever servicios de apoyo complementarios (como cuidados, transporte o accesibilidad digital) para garantizar su participación en condiciones de igualdad.

4.- Esta compensación será compatible con otras medidas de inclusión, como créditos formativos en el caso de personas jóvenes o estudiantes, y no tendrá carácter retributivo ni laboral.

### **Artículo 9.- Transparencia.**

1.- Toda la información asociada al proceso de la Asamblea Ciudadana de TECC de Euskadi será pública y estará disponible en una página web con objeto de garantizar la transparencia de todo el proceso.

2.- Se garantizará la protección de datos personales y la confidencialidad de la información sensible.

### **Artículo 10.- Recursos.**

1.- La Asamblea Ciudadana de TECC de Euskadi contará con los recursos materiales, humanos y presupuestarios necesarios para el cumplimiento de sus fines, sin perjuicio de su autonomía de funcionamiento.

### **Disposición Adicional Única.**

Autorizar al consejero del Departamento de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad para completar y desarrollar los aspectos necesarios para la organización y desarrollo de los trabajos de la Asamblea Ciudadana de TECC de Euskadi de acuerdo con la regulación establecida en este Decreto.

### **Disposición Final Única. Entrada en vigor.**

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.



Dado en Vitoria-Gasteiz, a ... de ... de 2026.

El lehendakari,

**IMANOL PRADALES GIL**

El consejero de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad,

**MIKEL JAUREGI LETEMENDIA**

**/2026 DEKRETUA, aren (e) koa, Euskadiko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Herritarren Batzarraren osaera, antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituena.**

Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko 1/2024 Legeak, otsailaren 8koak, bere 12. artikuluan jasotzen du Herritarren Batzar bat sortzea, herritarrek politika energetiko eta klimatikoen definizioan parte hartzeko tresna gisa.

1/2024 Legearen 12.3 artikulua nabarmentzen du Euskadiko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Herritarren Batzarraren osaera, antolaketa eta funtzionamendua dekretu bidez arautuko direla, Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 19. artikulua edo hura ordeztzen duen arauak ezartzen duenaren esparruan, betiere herritarrek eta elkarteek parte hartzeko gune egonkorrei dagokienez.

Demokrazia eta komunitatea indartzea lehentasunezko helburua da Eusko Jaurlaritzarentzat. 2024-2028 Gobernu Programaren oinarriari jarraituz, estrategia eraldatzaile bat ezarri da. Bide horren funtsezko zutabeetako bat erakunde publikoen eta gizartearen arteko harremanetan oinarritzen da: besteak beste, herritarren, administrazio publikoaren eta arduradun politikoen arteko harremanak sustatu, sakondu eta hobetu nahi ditu, eta, horretarako, lankidetzak, deliberazio eta partaidetzarako hainbat prozesu eta tresna abian jarri.

Estrategia horren esparruan, gobernantza kolaboratiboa lan-paradigma bat da, politika publikoen definizioan, garapenean eta inplementazioan herritarrak, gizarte zibil antolatua eta komunitatea sartu nahi dituena, inplikaturako eragile guztien arteko lankidetzak sustatuz. Politika publikoei heltzeko modu hori bereziki eraginkorra eta egokia da erronka eta errealitate konplexu eta interkonektatuei erantzuteko, arlo horretan hainbat faktorek esku hartzen dutenez gero. Orobat, berrikuntza demokratikoa bultzatu eta kultura demokratikoa sustatzen du.

Hala, herritarren deliberazio- eta partaidetza-prozesuak bultzatzea proposatzen da, gizartea agenda publikoko gai garrantzitsuei buruzko politika publikoetan inplikatuz. Horien artean, lehen esperientzia tematiko gisa, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Herritarren Batzarra abian jartzea nabarmentzen da.

Batzar hori gogoeta eta ezagutza kolektiboa sortzeko deliberazio-foro bat da, herritarrei aukera ematen diena trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren aurrean dauden erronkei eta konponbideei buruzko informazioa jasotzeko, eztabaidatzeko eta proposamenak egiteko, betiere justizia sozialaren, ekitatearen eta bidezko trantsizioaren ikuspegitik.

Arau honetan jasotzen den Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Herritarren Batzarraren diseinua nazioarteko esperientzia garrantzitsuenetan oinarritzen da, bai eta gertuago dauden beste batzuetan ere, eta eredu iraunkor baten alde egiten du, energia- eta klima-gaiak jorrazteko egokiena delakoan.

Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Euskal Bulegoak laguntza teknikoko organo gisa jardungo du Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Herritarren Batzarrari dagokionez, eta izaera iraunkorra emango dio. Herritarrek parte hartzeko tresna bat izango da, herritarren artean adostutako akordioak lortzeko trantsizio energetiko eta klima-aldaketari lotutako dilemei buruz. Batzarrak gomendioak sortuko ditu eta euskal erakunde-sisteman txertatuko da, bere eginkizunaren eta beste erakundeen eginkizunen artean sortutako zubien bidez.

Euskadi horrela integratzen da Herritarren Batzarrak aktibatzeko mugimendu globalean. Batzar hauek hausnarketa eta ezagutza kolektiboa sustatzeko sortu dira, herritarrek informazioa jaso, eztabaidatu eta adostasunak lortu ditzaten. Helburua da trantsizio energetikoaren eta larrialdi klimatikoaren erronkei aurre egiteko beharrezkoak diren eraldaketa handien aurrean irtenbideak bilatzea.

Balio demokratikoetan eta gobernantza ireki, garden eta hurbilarekiko konpromisoan oinarrituta, erregulazio honek herritarren ahotsa sendotu nahi du, politika publikoak diseinatzeko, ebaluatzeko eta hobetzeko funtsezko elementu gisa, gizarte-ehuna indartzen eta komunitatearen garapen jasangarria lortzen laguntze aldera.

Hori dela bide, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorri eta Gobernu Kontseiluak 2026ko aren (e) (a) n egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

## XEDATZEN DUT:

### I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.

#### 1. artikulua.- Xedea.

1.- Dekretu honen xedea da Euskadiko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Herritarren Batzarraren osaera, antolaketa eta funtzionamendua ezartzea, betiere Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren otsailaren 8ko 1/2024 Legearen 12. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

2.- Horretarako, arau honetan erregulatzen den Euskadiko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Herritarren Batzarra (Euskadiko TEKAREN Herritarren Batzarra) organo iraunkorra izango da, eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza teknikoa eta administratiboa izango du, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Euskal Bulegoaren bidez (TEKAREN Euskal Bulegoa).

3.- Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren arloan eskumena duen sailak egingo du Euskadiko TEKAREN Herritarren Batzarraren deialdia.

#### 2. artikulua.- Helburuak.

1.- Batzarraren helburua da herritarren esku-hartze zuzena sustatzea politika publikoen formulazioan, jarraipenean eta ebaluazioan, batez ere bidezko trantsizio energetikoaren, ingurumen-jasangarritasunaren eta tokiko ekintza klimatikoaren eremuan.

2.- Euskadiko TEKAREN Herritarren Batzarra hausnarketa eta ezagutza kolektiboa sortzeko foro gisa ezartzen da, eta aukera ematen die herritarrei klima-neutraltasuna lehenbailehen lortzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoa klima-aldaketaren inpaktuekiko erresilienteagoa izateko egin behar diren eraldaketa handietarako konponbideei buruzko informazioa jasotzeko, eztabaidatzeko eta adostasunak lortzeko, ikuspegi zuzen eta solidario batetik abiatuta.

3.- Hauek dira Euskadiko TEKAREN Herritarren Batzarraren eginkizunak:

- Emandako gaia aztertzea, laguntza tekniko eta informatiboarekin.
- Proposatutako dilemari eta galderari buruz eztabaidatzea.
- Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren arloko proposamenak eta gomendioak egitea.
- Gomendioak aurkeztu ondoren prozesua sozializatzea.

### **3. artikulua.- Printzipio gidariak.**

- 1.- Ordezkaritza-, inpartzialtasun-, independentzia-, gardentasun- eta informazio-printzipioen arabera jardungo du.
- 2.- Euskadiko TEKAREN Herritarren Batzarrak autonomia funtzionala, gardentasuna eta independentzia izango ditu alderdi politiko, interes partikular eta administrazio-organoei dagokienez.

## **II. KAPITULUA. OSAERA.**

### **4. artikulua.- Osaera.**

- 1.- Euskadiko TEKAREN Herritarren Batzarra, gutxienez, euskal gizartearen aniztasuna ordezkatzen duten 30 pertsonak osatuko dute. Haren osaera zehaztean, emakumeen eta gizonen arteko ordezkaritza orekatuaren printzipioa hartuko da kontuan, eta gazteen parte-hartzea ere bermatuko da. Horretarako, zozketa zibiko estratifikatu bat egingo da, funtsezko aldagai soziodemografikoak erabiliz: sexua, hizkuntza, errenta, lan-kualifikazioa, jatorri geografikoa, eta hiri-edo landa-eremuko bizilekua, besteak beste.

Zozketa bakoitzean, ordezkari pertsonen erreserba bat ezarriko da, batzarreko kideren batek bere parte-hartzeari uko egiten dion kasuetarako.

- 2.- TEKAREN Herritarren Batzarra deitzen den bakoitzean, batzarra osatuko duten pertsonak hautatuko dira.
- 3.- TEKAREN Herritarren Batzarra osatzen duten pertsonen parte-hartzea borondatezkoa izango da, eta independenteak izango dira.
- 4.- Euskadin bizi diren eta hauteskunde-errolan erregistratuta dauden 18 urtetik gorako pertsona guztiak hautatu ahal izango dira.
- 5.- Ezin izango dira, inola ere, TEKAREN Herritarren Batzarreko kide izan:
  - g) Diputatuen Kongresuko, Senatuko, Europako Parlamentuko edo Eusko Legebiltzarreko kide diren hautetsiak eta Eusko Legebiltzarrean akreditatutako legebiltzarkideak.

- h) Kontzejuetako, administrazio-batzarretako edo toki-erakundeetako alkateak, zinegotziak eta buruak.
- i) Lehendakaritzako titularrak, lehendakariordeak, gobernu-batzarretako eta foru-aldundietako osoko bilkuretako kideak, bai eta administrazio horietako goi-kargudunak ere.
- j) Alderdi politikoetako edo horien fundazioetako enplegatuak.
- k) Eusko Jaurlaritzako kideak eta goi-kargudunak.
- l) Azken hiru urteetan antzeko prozesuetan parte hartu duten pertsonak.

6.- Parte hartzeko hautatutako pertsonak erantzukizunpeko adierazpen bat izenpetu beharko dute, eta bertan azaldu aurreko arrazoiertako bat ere ez dela betetzen.

7.- Euskadiko TEKAren Herritarren Batzarra osatzen duten pertsonak parte-hartzea onartu ondoren, ukoa arrazoitu beharko da.

Uko egin, ezintasunen bat izan edo behin eta berriz huts eginez gero, hutsik dauden postuak zozketa estratifikatuan ateratako hurrenkeraren arabera beteko dira.

### III. KAPITULUA. LAGUNTZA- ETA LANKIDETZA-ORGANOAK

#### 5. artikulua.- Gobernantza.

1.- Euskadiko TEKAren Herritarren Batzarraren funtzionamenduan, Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko otsailaren 8ko 1/2024 Legean ezarritako zenbait organok esku hartuko dute; hona hemen:

- d) Trantsizio Energetikoaren eta Klima-aldaketaren Euskal Bulegoa.
- e) Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Batzorde Zientifikoa.
- f) Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko Legebiltzarreko Batzordea.

2.- TEKAren Euskal Bulegoa Euskadiko TEKAren Herritarren Batzarrari laguntzeko organo tekniko eta administratiboa da, idazkaritza tekniko eta etengabeko laguntza gisa jardungo duena, euskarri metodologikoa, teknikoa eta kudeaketakoa emanez.

3.- TEKAREN Euskal Bulegoari honakoa dagokio:

- i) Euskadiko TEKAREN Batzarreko idazkaritza teknikoaren eginkizunak betetzea, Batzarra aktibatuz eta dinamizatuz.
- j) Ondasunak eta zerbitzuak kontratatzeko eta hornitzeko behar diren prozedurak izapidetzea, indarrean dagoen araudi publikoaren arabera.
- k) Sailen arteko koordinazio egokia bermatzea Eusko Jaurlaritzaren eta erakunde publikoen artean.
- l) Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren arloko laguntza teknikoa ematea.
- m) Aktak, txostenak eta erregistroak egitea eta dokumentazio ofiziala gordetzea.
- n) Interes-taldeen dilema-proposamenak biltzea eta, batetik, dilema hori definitzeko prozesua erraztea eta, bestetik, Euskadiko TEKAREN Herritarren Batzar bakoitzean jorratuko den galdera zehaztea.
- o) Behar izanez gero, Euskadiko TEKAREN Herritarren Batzarraren proposamenen azterketa teknikoak, ingurumenekoak, ekonomikoak eta sozialak egitea.
- p) Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren arloan eskumena duen sailari laguntzea gomendioen ezarpenaren eta haien ebaluazioaren jarraipena egiten.

4.- Batzorde Zientifikoak laguntza teknikoa emango dio TEKAREN Euskal Bulegoari Euskadiko TEKAREN Herritarren Batzarra ezartzeko. Besteak beste, laguntza emango du dilema eta galdera definitzeko orduan.

5.- Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko Legebiltzarreko Batzordeak baliozkotuko du, ahalik eta adostasun politiko handienarekin, Euskadiko TEKAREN Euskal Bulegoak proposatutako dilema.

## IV. KAPITULUA. FUNTZIONAMENDUA.

### 6. artikulua.- Funtzionamendua

1.- Euskadiko TEKAREN Euskal Bulegoak definituko ditu lan-metodoa, gobernantza eta Euskadiko TEKAREN Herritarren Batzarraren funtzionamenduari buruzko gainerako gaiak, nazioarteko araudian ezarritako eta ELGAREN jarraibideetan inspiratutako bermeak errespetatuz; horiek guztiak, bada, barne-prozedura batean islatuko dira.

2.- Euskadiko TEKAREN Herritarren Batzarraren bilkurak hiru fasetan egituratuko dira, eta horiek aurrera eramateko ELGAREN jardunbide egokien printzipioak hartuko dira kontuan:

- d) Ikaskuntza-fasea: batzarreko kideei informazio orekatua, argia eta osoa emango zaie planteatutako dilemari buruz, parte-hartzaileek deliberazio informatua egiteko behar duten ezagutzaren berri izan dezaten.
- e) Deliberazio-fasea: parte-hartzaileek edukiak kontrastatu, etorkizuneko balizko egoerak imajinatu eta planteatutako galderarako erantzun posibleak aztertuko dituzte, adostasunetara iristeko.
- f) Gomendioak egiteko fasea: abiapuntuko galderari erantzuteko gomendioak idatziko dira.

3.- TEKAren Herritarren Batzarrak egindako gomendio guztiak bozkatuko dira, eta azken txostenari gehituko zaizkio bozketa egiteko unean gutxienez batzarra osatzen duten pertsonen % 80ren aldeko botoa lortzen dutenak.

Aurreko paragrafoan ezarritako laguntza-mailara iristen ez diren gomendioak modu osagarrian sartu ahal izango dira, proposamena egin dutenen arabera horien garrantzia justifikatzen duten arrazoiak eta gomendioa deskribatzen dituen azalpen labur baten bidez.

4.- Eztabaida horien ondorioz, TEKAren Herritarren Batzarrak gomendioei buruzko txostena egingo du.

5.- Txosten hori publikoa izango da, eta honako hauei bidaliko zaie: trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren arloan eskumena duen sailari, Eusko Jaurlaritzako Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Batzordeari eta TEKAren Euskal Bulegoari. Era berean, Eusko Legebiltzarrean trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren arloan eskumena duen batzordeari aurkeztuko dio sail horrek, trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren arloko eztabaida eta erabakiak hartzea errazteko.

6.- Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren arloan eskumena duen sailak gutxienez hiru aldiz eman beharko die erantzun publikoa gomendioei. Lehenengoa, gomendioak jaso eta hurrengo hiru hilabeteetan, eta beste bi aldiz lehen erantzunetik 6 eta 18 hilabetera, gomendioen ezarpenaren jarraipena egiteko.

7.- Euskadiko TEKAren Herritarren Batzarra deitzen den bakoitzean, funtzionamenduaren kanpo-ebaluazioa egingo da, erakunde independente batek printzipio gidariak betetzen dituen ebaluatzeko.

8.- Administrazio eskudunak TEKAren Herritarren Batzar bat deitu beharko du, gutxienez, legegintzaldi bakoitzeko, baldin eta herritarren eztabaidaren bidez landu beharreko dilema publikoren bat badago.

## **7. artikulua.- Dilema eta galdera zehaztea.**

- 1.- Euskadiko TEKAREN Herritarren Batzarrak Euskadik trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren aurrean dituen erronkak aztertu eta eztabaidatuko ditu.
- 2.- TEKAREN Euskal Bulegoak interes-taldeen dilema-proposamenak bilduko ditu.
- 3.- TEKAREN Euskal Bulegoa arduratuko da dilema definitzeko prozesua errazteaz.
- 4.- Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legebiltzarreko Batzordeak baliozkotuko du Euskadiko TEKAREN Herritarren Batzarraren dilema, ahalik eta adostasun zabalenarekin.
- 5.- TEKAREN Euskal Bulegoa arduratuko da, TEKAREN Batzorde Zientifikoarekin batera, TEKAREN Herritarren Batzarrean jorratuko den galdera definitzeaz. Erronka jakin batera mugatu behar da galdera, Herritarren Batzarrak erantzun bat eman dezan denbora mugatu batean, eta unean uneko agenda politikoan txertatu behar da.

## **8. artikulua.- Parte hartzeagatiko konpentsazioa.**

- 1.- Euskadiko TEKAREN Herritarren Batzarreko kideek konpentsazio ekonomikoa jasoko dute deliberazio-saioretan benetan parte hartzeagatik.
- 2.- Konpentsazio horren helburua izango da:
  - Parte-hartzaileek erabilitako denbora eta ahaleginak aitortzea.
  - Eskuarki oztopo sozioekonomikoak edo prestasun-oztopoak izaten dituzten profilen parte-hartzea erraztea.
  - Batzarraren osaeran aniztasuna eta ordezkarritza sustatzea.
- 3.- Zenbatekoa eta kontzeptu konpentsagarriak dagokion deialdian zehaztuko dira, ekitate-, proportzionaltasun- eta aurrekontu-irizpideen arabera.

Mendekotasun-egoeran dauden, zaintza-erantzukizunak dituzten edo premia bereziak dituzten pertsonen kasuan, laguntza-zerbitzu osagarriak aurreikusi ahal izango dira (zaintzak, garraioa edo irisgarritasun digitala, adibidez), berdintasun-baldintzetan parte hartuko dutela bermatzeko.

4.- Konpentsazio hori bateragarria izango da gizarteratzeko beste neurri batzuekin, hala nola prestakuntza-kredituekin, gazteen edo ikasleen kasuan, eta ez du ordainsari- edo lan-izaerarik izango.

## **9. artikulua.- Gardentasuna.**

1.- Euskadiko TEKAREN Herritarren Batzarrari lotutako informazio guztia publikoa izango da, eta web-orri batean egongo da eskuragarri, prozesu osoaren gardentasuna bermatzeko.

2.- Datu pertsonalen babesa eta informazio sentikorraren konfidentzialtasuna bermatuko dira.

## **10. artikulua.- Baliabideak.**

1.- Euskadiko TEKAREN Herritarren Batzarrak bere helburuak betetzeko behar dituen baliabide materialak, giza baliabideak eta aurrekontu-baliabideak izango ditu, hargatik eragotzi gabe bere funtzionamendu-autonomia.

### **Xedapen gehigarri bakarra.**

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuari baimena ematea Euskadiko TEKAREN Herritarren Batzarraren lanak antolatzeke eta garatzeko beharrezkoak diren alderdiak osatu eta garatzeko, dekretu honetan ezarritako araudiarekin bat etorritz.

### **Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea.**

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

2026ko ... egunean, Vitoria-Gazteiz-en egina.



Lehendakariak,  
**IMANOL PRADALES GIL**

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburua  
**MIKEL JAUREGI LETEMENDIA**